

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA  
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

# PROBA OROKORRA

201( ko PROBA



**IRUZKIN**

PROBA

ERANTZUNAK





## Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu

**Testu honetan oinarrituta, egizu testuaren ostean datorren jarduera.**

## Begiradak

**Uneak**, irudiak, sentimenduak, begiradak, irribarreak, koloreak... zer da benetan argazkilariorik bilatzen duguna argazki-makinaren botoia sakatzen dugunean?

Une errepikaezinak eta bakarrak biltzen ditugulakoan nago. Inon eta inoiz sekulan errepikatuko ez direnak gorde nahi ditugu, **hilezkor** bihurtu, ahaztezin izan, denbora gelditu une batez.

Neurri berean, badakigu une eta pasatutako denbora horietara nahi dugunean itzuli ahal izango garela argazki hori begien aurrean jartze hutsarekin.

Beraz, ez al da argazkigintza miraria? Nola ezagutuko genituzke hainbat eta hainbat pertsona, toki eta gertaera fotografiarik gabe?

Bakoitza **hausnarketa** honetara heltzen denean botoia sakatzeari ekiten dio era konpultsiboan.

Nola lagundu bestela gure **burmuinari gomuten** portura heltzen paperezko asmakizun hauek gabe?

Irudi hau ikusten dudan bakoitzean Istanbul urruneko kale eta auzo zikinetara bidaiatzen naiz. Hango merkatu koloretsu, jendetsu eta usain ezberdinez **zipriztinduetara** abiatzen naiz. Galata, Bosforo, Urrezko Adarra, Meskita Urdina, gaurko Taksim plaza **gatazkatsua**, han ezaguturiko eta **solasaldi** luzeak egindako lagun kurduak agertzen dira berehala.



*Istanbulleko neska musulmanak meskitarako bidean Ramadan garaian*

Argazkigintza da nire pasio **kuttunetariko** bat, bidaiatzea bestea. Biak uztartu nahi ditut nire bloga izango den honetan.

Zuen gustukoa izatea espero dut, ba al zatoz?



## JARDUERA

**Testuan oinarrituta, idatzi 20-25 lerroko testu bat. Aukeratu bi testu mota eta bi gai hauetako bat: (10 puntu)**

1. Artikulu bat idatzi behar duzu zeure auzuneko aldizkarian argitaratzeko. Hauxe da gaia: testua irakurri duzu, eta, zure ustez, literatura liburuek ere sentimendu berdinak sorraraz ditzakete.
2. Iruzkin bat idatziko duzu blogean eta zeure iritzia emango diozu idazleari testuari buruz.

**Kontuan hartu bi testu-genero horien egiturak:**

**Artikulua:**

- Lehenengo paragrafoan, sarrera idatzi.
- Hurrengo pasarteetan, garatu zure ideiak .
- Azken paragrafoan, ondorioak bildu.

**Blogeko iruzkina:**

- Kontuan hartu testuak dioena eta egilearen asmoa. Zure iritzia adierazi behar diozu eta ekarpenak egin.

**Eta ez ahaztu honako aholku hauek:**

- Ez egin jatorrizko testuaren laburpena.
- Ez parafraseatu.
- Adierazi zeure iritzia.
- Zirriborroa egitea komeni zaizu ideiak antolatzen laguntzeko.
- Idazlana bukatzen duzunean, arretaz irakurri eta testua orraztu entregatu baino lehen.
- Zirriborroa eman azterketarekin batera.

**Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan testua balioesteko:**

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak ez daitezela kontraesankorrak izan, ezta sakabanatuegiak ere).
- Esaldien eta pasarteen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei).
- Zuzentasun morfosintaktikoa eta ortografikoa.



## EBAZPENA

**Beheko taulak biltzen ditu idazlana zuzentzeko irizpideak.**

### IDAZLANA BALIOESTEKO TXANTILOIA

#### ***Egokitasuna (2 puntu)***

- Testuak hizkuntza- erregistro egokia du (formala iritzi artikuluan, hurbilagoa baina estandarra, hala ere, iruzkinean)
- Testua ondo egokitzen zaio atazak planteatutako helburuari.

#### ***Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)***

- Ez du jatorrizko testua parafraseatzen
- Bat dator eskatutako testu-generoarekin: egitura argia eta zehatza du (artikuluak sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere gehitu du).
- Gaiari lotutako iritziak ematen ditu eta informazio esanguratsua ematen du.
- Testuan zehar ez du erreferentea galtzen eta anbiguotasuna saihesten du.
- Gaiak testuari batasuna ematen dio, ideiak ez daude sakabanatuta edo solte. Ideiak ondo garatzen ditu.
- Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.
- Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu.
- Puntuazioa ondo erabiltzen du.

#### ***Lexikoa, joskera eta morfologia (4 puntu)***

- Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.
- Ortografia arauak betetzen ditu
- Arau morfosintaktikoak betetzen ditu.